

Javier Clemente Espainiako futbol selekzionatzailea atzo txotx egiten.
JAGORA MANTEROLA

Astigarragako Sagardo Berriaren Egunak hasiera eman dio txotx denboraldiari

Javier Clemente futbol selekzionatzaile bizkaitarrak zabaldu zuen atzo lehen upela

Jone Larrañaga / Astigarraga

SAGARDOA edalontzian hautsi eta «hau da Astigarrako sagardo berria» esanez zabaldu zuen atzo Clementek denboraldia. Ofizialki sagardotegiak etzi irekiko diren arren, atzo gutxi batzuek izan zuten sagardo berria dastatzeko aukera. Guztiak bat etorri ziren: aurtengoa ederra da oso.


«Joandako uda beroa eta lehorta izan denez, sagarrak ederki helduta jaso dituzte. Eta uza onak sagardo ona ematen du, kalitate handikoa. Adituen arabera, leuna, lurrintsua eta zapore onakoa da sagardo berria, «sifzioa sortzen duten horietakoa».

Aurtengo produktiorako guztira 10 milloi kilo sagar erabili dira, horien arteik erdiak ia Gipuzkoako bertakoak. Inaki Txueka Gipuzkoako Nekazaritza diputatuak azaldu zuenez, 10.000 landare berri aldatu dituzte Gipuzkoan, eta «esfortzu horren emaitza da produktiorako erabili dituzten sagarren % 50 bertakoak izatea».

Sagardoaren hiriburutik, Astigarragatik, sagardogileek antzinako tradizioari eustea egin dituzten ahaleginak goraiatu zituzten alzo eta haien profesionaltasuna azpimarratu. «Izan ditugu une onak, eta kaskarrak, baina niemengo sagardogileei esker tradizioa gugana heldu eta indartzea lortu da», azaldu zuten.

Kalitatea hobetu eta merkatua zabaldu • Joxe Miel Bereziartua sagardogileen lehendakariaren arabera, aurtien ere «ilusio» ekin diote denboraldiari: «Egunean-egunean sektorea aurrera eginen ari dela ikusteak, 1995eko sal-

Denboraldia San Sebastian bezperan, etzi, zabalduko den arren, Astigarraga eta inguruko sagardogileek atzo ospatu zuten Sagardo Berriaren Eguna. Ohitura dute jada sagardoa aurkeztu eta lehen upela irekitzeko ardura pertsona ezagun bati ematea. Javier Clemente Espainiako futbol selekzionatzaileari egokitu zaio lan hori aurtien.



Astigarragako udaletxean aurkeztu zuten ofizialki aurtengo sagardoa.
JAGORA MANTEROLA

menta onak kontuan hartuta, bide onetik goazela pentsarazten digu». Bereziartuak gogoratu zuenez, ordea, aurrerantzean dituzten erronkak handiak dira oraindik ere: kalitatea hobetzeko bidean gora jarraltzea batetik, eta merkatua zabaltea bestetik.

Horixe bera azpimarratu du Jaurlaritzak sektoreari buruz egin berri duen txostenak. Kalitateari dagokionez, azken urte hauetan egin den hobetzea azpimarratu du txostenak, eta sa-

gardo batetik besterako zapore aldaketa nabarmen leundu dela jarrri du adibidetzat.

Baina sektoreak aurrera egingo hadu merkatua zabaldu egin behar duela gaineratu du. Izan ere, sagardoaren merkatua oso kontzentratua dago oraindik, botiletako sagardo guztia % 75 Gipuzkoan saltzen baita. Horrez gainera, produktioaren ia erdia partikularrek eskuratzen dute zuzenean. Jaurlaritzatik egingdako azterketak garrantzi-

tsulzat jo du apurka sagardo markak ezagularaztea, hartara markaturatzea errazagoa izango litzateke-eta.

Dena den, txostenak etorkizun oparoa iragarri dio sagardoari. Produktuak gero eta harrera hobea du, eta gogor ari da lehiatzen konpentziaren kontra. gargaardoan eta ardoaren kontra alegia. Aurtien, gainera, lehortearen ondorioz ardoa garestitu egin da, eta horrek mesede handia egingo dio sagardoari. X